

DEBAko UDALA

2016SPLE0009
9. BILERA: OHIKOA 2016-07-28

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: bederatzigarrena

Eguna: 2016/07/28

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:00

Onarpen-eguna: 2016/09/29

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:


AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

Bertaratzeak eta irteerak

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/07/06).
2. 2015eko Kontu Orokorra onartzeko proposamena.
3. 2016ko San Roke jaietako programa eta aurrekontua onartzeko proposamena.
4. EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 298/2016 sententziaren berri ematea.
5. Auzi errekursoaren 133/2016 sententziaren berri ematea.
6. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
7. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/07/06)

2016ko uztailaren 6ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla.

2.- 2015eko Kontu Orokorra onartzeko proposamena.

Txostena

Kontu Orokorrari buruz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak ondoko hau xedatzen du:

62. artikulua. Urteko orriak eta kontuak.

1.- Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketan berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu:

Egoeraren Balantzea.

Galera eta Irabazien Kontua.

Memoria, honek atal hauek izan behar ditu:

Finantzaketa-taula.

Zorraren egoera.

Informazio-eranskina, hemen aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatu behar dira.

Aurrekontuaren likidazioa.

2.- Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte:

Egiaztapenaren balantzea.


Kreditu-aldaketan egoera-orria.

Baloreen egoeraren eta mugimenduen orria.

63. artikulua. Gertutu eta onesteko prozedura.

2.- Udalburuak gertutatako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen jarri behar da toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren onespenerako.

3.- Kontu Orokorra, aurreko idatz-zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrera azalduko da 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, ingerak zein oharra aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du.



DEBAko UDALA

Horiek horrela, **2016ko ekainaren 29an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen** eta 15 lanegunez jendaurrean ikusgai egon dira 2015 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrari eta Ondare Administrazioari zegozkien dirukontuak.

Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, **Kontu Orokorra udalbatzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.**

5.- Toki erakundeek **behar bezala onetsitako Kontu Publikoaren berri emango dio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari**, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

Erabakia.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamenaren eta idazkariaren txostenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla:

Lehenengo.- Onartzea 2015 ekitaldiko Kontu Orokorra, honako Aurrekontuok jasotzen dituenak:

- Udalarena.
- Deba Musikal Patronatuarena.
- Esku Langintza Eskola Fundazioarena.

Bigarrena.- Berri ematea Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari.

3.- 2016ko San Roke jaietako programa eta aurrekontua onartzeko proposamena.

Iritziak eta galde erantzunak

Iñigo Cambronero zinegotziak proposamenaren berri eman du.

Jaien programaren inguruan esan du, iraupenari dagokionez, jaiegun bat gehiago egongo dela, Debadarrak horrela proposatuta eta onartuta eta egun horren kostua Debadarrak bere gain hartuko duela.

Programan islatzen ez den arren kontzertuak egongo direla esan du eta horretarako Debarockekin elkarlanean ari direla.



DEBAko UDALA

Camborekin senidetzea dela eta, jaietan harremana instituzionala izango dela eta ekintza kulturala irailaren 10ean egingo dela eta proposamen hori jai batzordean eta kutura batzordean egin zela.

Txosnen inguruan esan du, gauzak antzera jarraituko direla egiten, funtzionamendu arauak egongo direla eginkizunak banatuz eta hori hitzarmen batean islatuko dela.

Txupinazoari dagokionez, esan du, jai batzordearen proposamena dela San Roke Kofradiako kideen esku uztea.

Azkenik, Jaietako Kartelaren irabazlea debako Ane Salegi izan dela azaldu du.

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, beraiek gai honetan abstenitu egingo direla.

Programari dagokionez esan du, gauza batzuk mantendu egin direla, baina beraientzat irizpide diren beste gauza batzuk ez direla jaso. Beraientzat garrantzitsua da, beste batzuen artean, jai partehartzaileak izatea, txupinazoa eta danborrada eragile sozialen esku uztea, horiek errekonozitu nahian...

Jaien iraupenari dagokionez, eta edukian sartuko ez den arren, faltan bota dute egun bat gehitzea ez izatea eztabaida baten ondorioa.

Camborekin senidetzea dela eta, jaietan harremana instituzional hutsa izatearen inguruan esan du, beraiek ipar-hego kontzeptua daukatela gogoan eta nazio ikuspuntu batetik ikusten dutela gaia, hau da, ikuspegi instituzional batetik haragago.

Ane Egidazu zinegotziak esan du danborradaren inguruan, batzordean ez dela landu alkatea izango den edo ez, gaia ez baita mahai gainean jarri, gogoan ez dutelako izan.

Horren harira Marilu Albizu zinegotziak esan du, batzordeak horretarako direla, proposamenak egiteko, eta Iñigok esan du, ahaztuta zeukatela gai hori eta ez dutela horretan erreparatu.

Azkenik, jaietan eraso sexisten inguruan, Deban protokolo bat dagoela gogorarazi du Maiderrekin eta galdetu du nola landuko den gaia.

Mariluk erantzun du, gaia berdintasuna batzordean landu dela, informazio-kartelak aterako direla eta protokoloa jadanik martxan dagoela.

Gaia nahiko ezaguna dela ikusirik, Alkateak bozkatu beharra dagoela adierazi du.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

BOZKETA

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	10
◇ Aldeko botoak:	8
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BENGOTXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGIDAZU, M ^a	



DEBAko UDALA

LUIA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	2
◇ Abstenitu direnak: MAIDER ZUBICARAY, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Emaitza: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia.

Proposamenaren berri izanda, Udalbatzarrak hartu du erabakia goian adierazitako gehiengoarekin legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla.

Lehenengo.- 2016ko San Roke jaietako programa eta aurrekontua onartzea.

4.-EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 298/2016 sententziaren berri ematea.

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.


5.- Auzi errekurtsuaren 133/2016 sententziaren berri ematea.

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

6.-Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

56	2016/07/01	Parking zaindariaren kontratazioa: Uztailaren 2tik 3ra	
57	2016/07/05	Euskadi Minbiziaren Aurkako elkarteari baimena uztailaren 23an eta 24an diru batzea egiteko	2016ALES0036
58	2016/07/06	Endara Eraikuntzak SLri Plaza Zaharrean konponketa lanak egiteko kontratua esleitzea (16.843,20 €BEZ barne)	2016SCOU0006
59	2016/07/07	XX-ek A.U.19 gunean (Busto) egiten ari diren obrei buruz egin duen eskaerari ezezko erantzuna ematea	
60	2016/07/08	Parking zaindariaren kontratazioa: Uztailaren 9tik 10era	
61	2016/07/11	Brigadarako bi langileen kontratazioa: Uztailaren 11tik abuztuaren 30era	
62	2016/07/12	Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzea, gas naturala hornitzeko.	
63	2016/07/12	Spicer Ayra Cardan SA-k aurkeztutako Xehetasun Azterlanari hasierako onarpena ematea	2016URED0001
64	2016/07/13	San Josepe 1 eta 2an dagoen ibi iraunkorraren titularitate aldaketa	
65	2016/07/15	Parking zaindariaren kontratazioa: Uztailaren 16tik 17ra	
66	2016/07/20	Izenbe tabernari toldoa jartzeko baimenik ez ematea	2016URES0009
67	2016/07/20	Parking zaindariaren kontratazioa: Uztailaren 20tik Abuztuaren 1era	



DEBAko UDALA

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

7.- Eskariak eta galderak.

Cristobal del Corte zinegotziak azaldu du zabor bilketaren inguruan, sistema berriaren ezarpena bi hilabete atzeratuko dela, izan ere, zerrilen horniketa ez da bermatzen iraila arte. Horren berri prentsan emango dela esan du.

Horren harira Maider Zubikarai zinegotziak adierazi du, hori ez dela notizia txar bakarra, gaur bertan erraustegiaren esleipena egin baita.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko uztailaren 28an



